

# 42. LIZARDI SARIA



LIZARDI SARIA

## 1. SARIA

Zarauzko Udalak, **42. Lizardi Saria** antolatzen du, euskarazko gazte literatura sustatzeko.

## 2. BALDINTZAK

Sariketari parte hartzeko, ondorengo baldintzak beteko dituzte literatur obrek:

- **Gazteentzako** eleberria, 13-17 urte arteko irakurleentzat.
- Luzera: **55.000** karakteretik gorakoa.
- Jatorriz **euskaraz** idatzia.
- Obrak **originalak**, argitaragabeak eta beste lehiaketetan saritu gabeak izango dira.

## 3. AURKEZPENA

Eleberria **DIN A4 neurriko orrietan** aurkeztuko da, **ordenagailuz idatzirik** eta **lerroen artean tarte bikoitza** utzita.

### Posta bidez:

Obra bakoitzaren **ale bat** bidali, **orriak zenbakituta**.

**Izengoitiz sinatu** ko da eleberria. Eta aparteko gutun-azal itxi baten barruan adieraziko dira: izengoitia, izen-abizenak, helbidea, eposta eta telefono zenbakia.

Ziurtatutako gutuna **helbide honetara** helarazi:

Lizardi Saria  
Zarauzko Udala - Kultura Departamentua  
Sanz-Enea Kultur Etxea  
Nafarroa Kalea 22 - 20800 Zarautz

### Posta elektronikoz:

[kultura@zarautz.eus](mailto:kultura@zarautz.eus) helbidera **bi pdf artxibo** bidali, era honetara:

- **Eleberria:** obraren izenburua eta parentesi artean egilearen izengoitia. Adibidez: [Itsasoaz beste aldean \(Izarloka\).pdf](#)
- **Izenemate orria osatu eta sinatuta;** pdf dokumentuaren izena egilearen izengoitia izango da, adibidez: [Izarloka.pdf](#)

## 4. EPEAK

Eleberria **aurkezteko epea 2023ko uztailaren 14an** bukatuko da. Behin aurkeztuz gero, parte-hartzaileak ezingo dio lehiaketari uko egin.

**Epaia 2023ko irailaren 29an** jakinaraziko da.

**Ordainketa 2023ko abenduaren 22a** baino lehen egingo da.

**Sari-ematea 2024ko apirilaren 2an** izango da.

## 5. EPAIMAHAIA

Hiru lagunek osatuko dute epaimahaia. 42. edizioko epaimahaian izango dira: **Alex Gurrutxaga, Castillo Suarez eta Nerea Loiola**, edo horien ordezkak.

Zarauzko Udalak idazkari bat izendatuko du, epaileen arteko batzarra deitzeko, erabakia jasotzeko eta irabazleari jakinarazteko.

## 6. EPAIA

**Zarauzko Udalak 5.500 euro** ezarri ditu irabazlearentzat. Saria P.F.E.Z. zergaren atxikipez salbuetsita dago.

Epaimahaiaren erabakia atzeraezina izango da. Aurkeztutako eleberriek behar adinako mailarik ez balute, saria eman gabe geratuko da.

## 7. ARGITALPENA ETA SARI EMATEA

Idazlearenak dira obraren gaineko eskubideak.

Idazlearen, ilustratzailearen eta argitaletxearen artean argitalpen kontratua sinatu bezain laster, **Zarauzko Udalak 1.000 euroz lagunduko du ilustratzailearen** liburuaren bikaintasuna sustatzeko. Ilustratzaileari faktura bidez ordainduko zaio.

2023ko irabazlearen **liburua 2024ko apirilaren 2an aurkeztuko da Zarautzen**, Sari Ematearen egunean.

## 8. SARITU GABEKO LANAK

Zarauzko Udalak konfidentzialtasun osoz gordeko ditu idazlan guztiak. Epaia ezagutzera eman ostean, deuseztatu egingo ditu saritu gabeko obrak eta hauekin batera iritsitako gutun-azalak.

## 9. LEGE BARRUTIA

Arautegi honetan jasotzen ez den gorabeherarik sortzen bada, sariketara aurkeztu diren idazleek auzi guztiekiko erabakia erakunde antolatzailearen esku utziko dute.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.



LIZARDI SARIA



ZARAUZKO UDALA